

2009-04-05

Ezkio-Itsaso. Igartubeiti Museoa “Ipar haizearen erronka filma ikusteko aukera egongo da gaur arratsaldean Igartubeitin”

Igartubeiti Baserri Museoek familiei zuzendutako tailer didaktikoen antolaketarekin jarraitzen dute eta gaur filma bat ikusteko aukera izango dute gaztetxoek bertan.

Hilabete honetan, aurreko bietan egin duten bezala, baserriaren inguruko gaiekin lotuta ekintza desberdinak antolatzen ari dira museokoek, hauetan ume eta gurasoek parte hartu dezaten.

Orain arte tailer guztiak praktikoak izan dira eta datozen asteetan hauekin jarraituko dute, baina gaur film bat ikusteko aukera izango dute gaztetxoek. Pelikulak Ipar haizearen erronka du izenburu gisa eta arratsaldeko 16:00etan hasiko da interpretazio zentruan bertan.

Jakina denez, ekintza honetan parte hartu nahi duten guztiek izena aldeztu aurretik eman beharko dute eta honetarako hiru aukera daude: Igartubeitiko interpretazio zentrutik pasa, 943 72 29 78 telefonora deitu edo igartubeiti@gipuzkoa.net helbide elektronikoaren bitartez egin.

M. GALILEA